

- BEZEROAREKIN HARREMANA

Garrantzitsua da definitzea gure enpresak bezeroarekin zein harreman mota izango duen.

Hasiberriak garenez eta bezeroak erakarri nahi ditugunez, bezeroei hainbat abantaila emango dizkiegu. Hasteko, lehenengo hilabetean deskontu ikaragarriak egongo dira, baita ere data zehatzetan; hala nola; gabonak eta gero, udan, Black Friday egunean eta teknologia egunean (apirilaren 10ean). Egun berezi horietan, erregistratuta dauden bezeroei mezu elektronikoa bat helduko zaie, azken berriei buruzko informazioa eskeiniz. Horretaz aparte, gure webgunean, beherapen bereziei buruzko iragarkiak egongo dira, jendearen arreta erakartzeko.

Bestetik, bazkide txartela egongo da. Beste bezeroek baino abantaila gehiago izango dute eta informazioa eta beherapenei buruzko informazioa jasoko dute.

Gainera, zerbait erosten denean bezeroei kode bat emango zaie deskontua batekin hurrengo erosketarako. Beste abantaila bat, "prime" izateko aukera da. Honen bidez, 24h-72h bitartean heltzen zaizkie produktuak helbidera.

Kexaren bat edo galderaren bat egonez gero, eskuragarri edukiko dute telefono zenbaki eta helbide elektronikoa bat, gurekin kontaktuan jartzeko. Gure erantzuna, ahal dugun azkarren jasoko dute, izan ere, astelehenetik larunbat goizera arte, lanean arituko gara gure produktuak eta zerbitzuak hobetuz.

Azkenik, Instagram-eko eta Twitter-eko kontu bat izango dugu. Bertan, gure produktuen argazkiak eta haien deskribapen txiki bat igoko dugu. Noizean behin zenbait produktuen zozketak egingo ditugu ere.

